

Vietnamgo Makina- erreminta sektorearen analisi

Laburpen exekutiboa

2022ko urria



Basque Trade & Investmet cuenta con las autorizaciones necesarias para la elaboración del presente documento y sus anexos con información facilitada por los propietarios de las bases de datos utilizadas al efecto; así mismo, ha obtenido autorización para su difusión únicamente entre los destinatarios de los mismos.

Este documento y documentos anexos son confidenciales y dirigidos exclusivamente a los destinatarios de los mismos. Quedan terminantemente prohibidas la distribución, copia o difusión total o parcial de los mismos por ningún medio salvo a las personas autorizadas para su recepción dentro de la organización.

El destinatario se compromete a no manejar, usar, explotar o divulgar la información confidencial a ninguna persona o entidad por ningún motivo en contravención a lo dispuesto en esta cláusula, salvo que sea expresamente autorizado por escrito a hacerlo.

El uso no autorizado de la información contenida en el documento y sus anexos así como el incumplimiento del deber de confidencialidad está sujeto a responsabilidades legales reservándose Basque Trade & Investment el derecho de reclamar el resarcimiento de los daños y perjuicios que le pudieran causar como consecuencia de la vulneración de sus deberes por parte del destinatario.

Basque Trade & Investmet-ek behar diren baimen guztiak ditu dokumentu hau eta bere eranskinak prestatzeko horretarako erabilitako datu-baseen jabeek emandako informazioarekin; era berean, baimena lortu du dokumentu hau eta bere eranskinak banatzeko bakar-bakarrik bere hartzailleen artean.

Dokumentu hau eta bere eranskinak isilpekoak dira, eta bere hartzailleei bakarrik zuzentzen zaizkie. Guztiz debekatuta dago dokumentu horiek ezein bitartekoren bidez banatu, kopiatu eta osorik edo partzialki zabaltzea, salbu eta antolakunde barruan jasotzeko baimena duten pertsonei.

Hartzailleak hitz ematen du ez duela isilpeko informazioa kudeatuko, erabiliko, ustiatuko edo ezein pertsona edo erakunderi helaraziko ezelango arrazoiengatik klausula honek agintzen duenaren kontra, salbu eta idatziz ematen bazaio horretarako baimena.

Dokumentu honetan eta bere eranskinetan jasotako informazioa baimenik gabe erabiltzeak eta konfidentzialtasun betebeharra ez betetzeak ondorio legalak izango ditu, eta Basque Trade & Investment-ek eskubidea izango du kalte-ordainak eskatzeko hartzailleak bere betebeharrak urratzeagatik gerta litezkeen kalteengatik.



Laburpen exekutiboa

Vietnam herrialde dinamikoa da eta hazkunde ekonomikoaren buru da Asian

Vietnam da Asia Ekialdeko herrialde gorakor dinamikoenetako bat. Estrategikoki kokatuta dago, sistema politiko egonkorra du, eta baita ere lan-esku gazte eta ugaria, lan-kostu lehiakorrak, Atzerriko Zuzeneko Inbertsiorako ingurune nahiko irekia eta merkataritza-erregimen onuragarria. Horregatik guztiagatik, produkzioa nahiz merkataritzako gero eta ezarpen gehiago egiten ari dira hainbat sektoretan. Vietnam hazkunde ekonomikoaren buru da Asian, % 7,5eko hazkunde-aurreikuspena du 2022rako, eta inflazio-maila baxua, datozen urteetan % 3,3 eta % 4,0 bitartean mantenduko dena.

Adierazle nagusiak	2021	2022	2023	2024	2025
BPGa (bariazioa %, prezio konstanteak)	2,576	7,500	6,700	6,500	6,945
Per capita BPGa, egungo prezioak (USD)	3.7245	4.122	4.622	5.107	5.612
Manufakturaren balio erantsi gordin nominala (milioi USD)	58.250	65.166	72.045	79.101	87.207
Inflazioa: kontsumoko prezioak (bariazioa %, haztapena)	1,871	3,847	4,000	3,300	3,500

Iturria: World Bank. 2022. Taking Stock, August 2022: Educate to Grow, IMF, Ministry of Labour Vietnam, Fitch Solutions

Manufakturako industriaren garapenak makina-erremintaren eskaria handitu du

Vietnamgo makina-erremintaren eskariaren aurreikuspenak positiboak dira. Makina-erremintaren ageriko kontsumoa modu sostengatuan hazi da 2016 eta 2019 artean, azken urte horretan 2015eko maximoa gainditu zelarik. 2020an eskaria jaitsi ostean, espero da 2022an berriro erdietsiko dela 2019ko kontsumo-maila eta hazkundeak gorantz jarraituko duela 2023an. Sektoreka, identifikatu da badagoela eskaria automobilgintzan, batik bat, balio erantsi gutxiko osagai txikiak fabrikatzeko, baina baita ere transmisioeko elementuak ekoizteko. Aeronautika sektorean, nahiz eta ez den mihizatzen hegazkinik, osagaiak fabrikatzen dituzten hainbat enpresa kokatu dira Vietnamentan, eta mekanizatu-zentroak, fresagailuak eta tornuak (motor, fuselaje eta lurreratze-trenen osagaiak ekoizteko) behar dira. Energia sektorean turbinetako transmisio-fabrikatzaile batzuk identifikatu dira; elektronikaren sektorean, berriz, mota guztietako zehaztasunezko makinak eskaria dago, eta sektore horretara bideratutako laser bidezko ebaketa-makinak inportatzen dira.


Sektorea	BPGn duen garrantzia	ME eskaera
Automobilgintza	% 3 ¹	Industria lokalizatua. Balio erantsi gutxiko osagai txikiak ekoizten dira gehienbat. Transmisioen merkatuan Japoniako Tier handiak dira nagusi.
Aeronautika	% 5,2 ²	Ez da mihizatzen hegazkinik, baina badaude osagaiak fabrikatzen dituzten enpresak. Mekanizatu-zentroak, fresagailuak eta tornuak behar dira (motor, fuselaje eta lurreratze-trenen osagaiak ekoizteko).
Energia	% 3,77 ⁴	Hazten ari den sektorea da, baina ez dago oso lokalizatuta. Europako Tier-ek turbinetako transmisioak fabrikatzen dituzte.
Elektronika	% 23,4 ⁴	Sektore honetan kontsumoko elektronikako gero eta fabrikatzaile asiar gehiago dago. Mota guztietako zehaztasuneko makinak behar dira. Sektore horretara bideratutako laser bidezko ebaketa-makinak inportatzen dira.

¹ Hai Duong-eko batzorde probintziala, 2021, ² Aire bidezko garraioa nagusiki, IATAren datuak, ⁴ Elektrizitate, gas, lurrun eta aire girotuen sektorea. Statista, 2020 ⁴Vietnam's Electronics Industry: the rise and problems of further development, 2014ko datua

Iturria: Agentziak egina



Gorago aipatutako sektoreetan identifikatu da badaudela makina-erremintaren 40tik gora balizko bezero, produkzio arloko eta merkataritzako ezarpenak dituztenak. Enpresa horiek Hanoi eta Ho Chi Minh hirien inguruetako eremu geografikoetan daude kontzentratuta, eta atzerriko enpresa gehienak, berriz, herrialde asiarretakoak dira (Japonia edo Hego Korea), nahiz eta Alemania edo Estatu Batuetako enpresa batzuk ere identifikatu diren. Txostenaren bertsio osoan aurkituko duzu enpresen zerrenda osoa.




Identifikatu diren balizko bezeroak

Iturria: Agentziak egina. Bing-ekin eginiko mapa

Makina-erremintako ezarpen gutxi dago Vietnamen, horregatik dago inportazioen menpe

Makina-erremintaren hornikuntzari dagokionez, industriako ezarpen-tasa oso apala da. Gaur egun, Vietnamgo industria laguntzaileek ez daukate behar adinako gaitasunik atzerriko makina-erremintako enpresek euren fabrikazio-operazioak ezar ditzaten, eta gainera, makinak ekoizteko behar diren lehengai batzuk ezin dira eskuratu herrialdean, horrek garestitu egiten duelarik fabrikazioa. Hori dela eta, oso gutxi dira tokiko fabrikatzaileak, eta atzerriko enpresa gehienek (Japonia, Hego Korea, Estatu Batuak, Alemania, Txina eta sektoreko lider diren beste herrialde batzuetakoek) bulego komertzialak dituzte, edo bestela ordezkari nahiz banatzaileak. Finean, Vietnamek makina-erreminta eskuratzeko duen hornikuntza-bide nagusia inportazioa da.


Kalkulatzen da Vietnamek bere makina-erremintaren % 70 baino gehiago inportatzen duela. Makina-erremintaren inportazioen balioak progresiboki hazi ziren 2016 eta 2019 artean, ia % 13 guztira. 2020an pandemiagatik jasandako jaitsiera gorabehera, eta kontuan izanik ez dirudiela epe labur eta ertainean aldaketa nabarmenik egongo denik herrialdeak makina-erreminta fabrikatzeko duen gaitasunean, espero da makina-erremintaren inportazio-tasak hazten jarraituko duela. Halaber, uste da kalitate handiagoko makinaren pisua ere hazi egingo dela guztizko inportazioetan. Inportatutako makina-motei dagokienez, azken urteetako inportazioen balioen ia erdia hiru muga-zerga partida hauetan kontzentratzen da: forjaketa eta estanpaziorako makinak (ia % 28), laser bidezko ebaketa-makinak (% 17 baino gehixeago) eta fresagailuak (% 11 baino zertxobait gehiago).



Iturria: Agentziak egina UN Comtrade-ren datuekin

Nahiz eta Txina eta Japonia nagusi diren merkatuan, badago baita ere Alemania, Italia eta Estatu Batuetako makina-erremintaren eskaria

Txina eta Japonia nagusi dira merkatuan inportazioen arloan (2020an % 34 eta % 23ko tasak izan zituzten hurrenez hurren), halere, aipagarria da Alemaniako inportazioek pisu erlatiboa dutela aztertutako mugazergen partida ia guztietan, eta horrek erakusten du badagoela merkatu-nitxo bat Europako makinentzat. Alemaniako makina-erremintaren inportazioen balioa ia boskoiztu egin zen 2016 eta 2019 artean. Eskabide handiena duten Alemaniako makinak fresagailuak dira, inportatutako makina guztien balioaren % 13 hartzen dutelarik 2020an. Badago beste segmentu garrantzitsu bat, akaberak emateko makinena eta mekanizatu-zentroena hain zuzen. Aldiz, Txina da nagusi laser bidezko ebaketa-makinen segmentuan, eta orobat presentzia handia du forjaketa eta estanpazioko makinen inportazioan. Baina, tornuen kasuan, herrialde asiarrak jaun eta jabe dira merkatuan, eta oso espazio gutxi uzten diete mendebaldeko herrialdeetako (Estatu Batuak, Alemania, Italia edo Frantzia) inportazioei (% 3).



Merkatu-kuota jatorriko herrialdeen arabera eta 2020ko inportazioen balioa kontuan hartuta

Iturria: Agentziak egina UN Comtrade-ren datuekin



Inportazioen jatorria aztertzeaz gain, garrantzitsua da baita ere esportatzaileak identifikatzea, balitekeelako sektoreko enpresa garrantzitsuenek toki desberdinetatik esportatzea makina-erreminta. Zentzu horretan, ikusi da Estatu Batuetako eta Europako enpresa liderrak Vietnamgo makina-erremintaren merkatuko segmentu guztietan daudela. Makina-erremintako euskal enpresaren bat ere badago Vietnamera esportatzen duten enpresen artean. Taula honetan ageri dira identifikatutako esportatzaile batzuk:

Esportatzailea	HQ	Esportatutako produktuaren kategoria
Salvagnini	Italia	8456- Laser bidezko ebaketa-makinak 8462- Forjaketa eta estanpazioko makinak
Trumpf	Alemania	8456- Laser bidezko ebaketa-makinak 8462- Forjaketa eta estanpazioko makinak
Chiron Group	Alemania	8457- Mekanizatu-zentroak
HASS Automation	Estatu Batuak	8457- Mekanizatu-zentroak 8458- Tornuak 8459- Fresagailuak
DMG Mori	Alemania / Japonia	8457- Mekanizatu-zentroak 8458- Tornuak 8459- Fresagailuak
Bacci	Italia	8458- Tornuak
FICEP	Italia	8459- Fresagailuak
SuS Schleiftechnik und Maschinenhandel	Alemania	8460- Akaberak emateko operazioetarako makinak
WF Maschinenbau und Blechformtechnik	Alemania	8462- Forjaketa eta estanpazioko makinak
EHRT Maschinenbau	Alemania	8462- Forjaketa eta estanpazioko makinak

Iturria: Agentziak egina Easy Trade Global-en datuekin

Merkataritza Libreko Akordio ugariak Vietnamgo merkaturako sarbidea errazten dute

Vietnamek merkataritza libreko akordio askotan parte hartzen duenez erakargarria da herrialde horretara esportatzea. Europar Batasunaren eta Vietnamenten arteko EVFTA akordioaren bidez ia muga-zerga guztiak desagerrarazten dira. Orobat, konpromisoa hartzen da aduana-tarifak kentzeko trantsizio-epe batean: zazpi urteko epean goitik jota Vietnamgo salgaietzat, eta hamar urteko epean EBko salgaietzat.

Gainera, Eskualdeko Elkarrekin Ekonomikoa Integratzen (RCEP) kasuan, non sartuta dauden ASEAN taldeko herrialdeak, Txina, Japonia, Hego Korea, Australia eta Zeelanda Berria, muga-zergak % 65ean murrizten zaizkie herrialde horien artean trukaturako ondasunen % 90ari eta, hortaz, Japonia, Txina eta Hego Koreatik makina-erreminta esportatzea ere onuragarria gertatzen da.

Halere, eta merkataritza aldetik merkatura sartzeko dauden erraztasunak gorabehera, egia da sarrera hori oztopatzen duten eragozpen handiak daudela, hala nola garraio azpiegitura ahul samarrak, kostu logistiko handiak eta aduana-prozedura geldo eta ez oso gardenak.

Banaketa-kanalei dagokienez, esportatu nahi duten atzerriko enpresek agente edo banatzaile baimendu bat izendatu behar dute, non ez daukaten inbertsio-lizentzia bat aukera ematen diena euren salgaiak zuzenean Vietnamenten banatu eta bertako txanponarekin fakturatzeko. Txostenaren bertsio osoan zerrenda bat dago identifikatutako banatzaile eta inportatzaile guztiekin.



Makina-erreminta esportatzeko aukerak txirbil-harroketa, deformazio eta akaberak emateko zenbait operazio segmentutan

Makina-erremintaren esportazioaren arloan hainbat aukera identifikatu dira, uste baita inportazioak hazi egingo direla eskaera gero eta handiagoagatik, manufaktura sektoreen garapenagatik eta Vietnamek dituen arazoengatik zenbait aplikaziotarako behar duen makineriaz bere burua hornitzeko. Nahiz eta merkatuaren zati handi bat herrialde asiarren menpe egon, badago nitxo bat Europako makineriarentzat, eta hor daukate aukera bat euskal enpresek. Bestalde, euskal enpresa batzuk hasiak dira jada makina-erreminta esportatzen Vietnamera, eta hori aukera-adierazle bat da sektore osoarentzat. Nahiz eta bolumen txikiak izan momentuz, komenigarria izan liteke merkatuan posizionatzen hastea Vietnamek izango duen hazkunde potentziala aprobeztatzeko.

Hauek dira aukera-segmentu garrantzitsuenak:

- **Fresagailuak.** Fresagailuak hirugarren produktu-multzoa dira Vietnamgo inportazioen balioaren arabera (% 11,2 2020an), eta horixe da Alemaniatik esportatzen den makina-erremintaren nitxo nagusia (% 13,2 2020an). Aeronautika da horrelako makinentzat identifikatu den interes-sektoreetako bat. CNC fresagailu bertikal eta horizontalen esportazioa identifikatu da.
- **Forjaketa eta estanzazioko makinak.** Eskaera handiena duen segmentua da inportazioen balioaren arabera (% 27,6 2020an). Nahiz eta Alemaniako makineriak ia ez diren ageri merkatuan, Estatu Batuetako makinek badute txoko bat (% 9,5 2020an). Identifikatu diren makina gehienak tolesgailuak eta puntzonatzeko makinak dira.
- **Laser bidezko ebaketa-makinak.** Bolumen handiena duen bigarren segmentua da inportazio-balioaren arabera (% 17,3 2020an). Elektronika sektorera doaz inportazio gehienak, eta Txina nagusi izan arren (% 50,8), Alemaniatik esportatzen den makineria % 7,7ra iritsi zen 2020an.
- **Akabera emateko operazioetarako makinak.** Nahiz eta mota honetako makina-erremintak ez izan merkatu-kuota handirik inportazio-balioaren ikuspegitik (% 7,1 2020an), Alemaniako eta Italiako esportazioen portzentajea esanguratsua da (% 8 eta % 5, hurrenez hurren). Artezgailuak, leungailu automatikoak eta alakagailuak esportatzen direla identifikatu da.
- **Mekanizatu-zentroak.** Mekanizatu-zentroen inportazio eskaera Vietnamen % 9,3ra iritsi zen 2020an (balioaren arabera). Aldi berean, Alemaniatik egindako esportazioek kuota-portzentaje esanguratsua dute (% 8 inportazio-balioaren arabera 2020an). Aeronautika sektorera bideratutako esportazio bat identifikatu da.

Txostenaren bertsio osoa lor daiteke Iker López eskatuta: ilopez@basquetrade.eus

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Urkijo Zumarkalea, 36-5. solairua, Plaza Bizkaia Eraikina
48011 Bilbo info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60